**EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 11koa, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sozietate Zibilen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzen duena.**

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Sozietate Zibilen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua prestatu du, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera izapidetu behar da.

Lege horretan xedatutakoa betetze aldera, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak, 2022ko ekainaren 14an, agindu bat eman zuen, aipatutako dekretu-proiektua prestatzeko prozedurari hasiera emateko. Era berean, 2022ko abuztuaren 3an, agindu bat eman zen, dekretu-proiektuaren testua aurrez onartzeko, haren artikuluak idatzi ondoren.

Aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikuluaren arabera, (prozedura honetan aplikagarria, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera) herritarren eskubide eta interes legitimoei eragiten dieten xedapen orokorrak jendaurrean jarriko dira, eta gauza bera egingo da xedapenen izaerak hala eskatzen duenean.

**RESOLUCIÓN de 11 de agosto de 2022, de la Directora de Relaciones con las Administraciones locales y Registros Administrativos, por la que se somete a información pública el proyecto de Decreto por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Sociedades Civiles del País Vasco**.

El Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno ha elaborado un proyecto de Decreto por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Sociedades Civiles del País Vasco, que ha de tramitarse conforme determina la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

En cumplimiento de las disposiciones de la citada Ley, la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno dictó, con fecha 14 de junio de 2022, la Orden por la que se da inicio al procedimiento para la elaboración del citado proyecto de decreto. Asimismo, con fecha 3 de agosto de 2022 se dictó la Orden de aprobación previa del texto del proyecto de decreto, una vez redactado su articulado.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 8.1 de la citada Ley 8/2003, (aplicable al presente procedimiento de conformidad con lo establecido en la Disposición Transitoria de ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elboración de las Disposiciones de Carácter General) las disposiciones de carácter general que afecten a los derechos e intereses legítimos de la ciudadanía, y aquellas otras cuya naturaleza lo aconseje, se someterán a información pública.

Donostia-San Sebastian, 1
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 01 85 06
e-maila: elkarfun@euskadi.eus

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Sozietate Zibilen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzen da 20 egun baliodunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

A tal efecto, se somete el proyecto de Decreto por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Sociedades Civiles del País Vasco, al trámite de información pública, por un periodo de 20 días hábiles, a contar desde del día siguiente al de la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Azaldutako guztiagatik, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren 2022ko ekainaren 14ko Aginduan (aipatutako dekretu-proiektua prestatzeko prozedurari hasiera ematen diona) xedatutakoarekin bat etorriz, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 11 artikuluari dagokionez, honako hau

Por todo lo expuesto, y de conformidad con lo dispuesto en la Orden de 14 de junio de 2022, de la Consejera de Gobernanza Publica y Autogobierno, por la que se da inicio al procedimiento para la elaboración del mencionado proyecto de decreto, en relación con el artículo 11 del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno,

**EBAZTEN DUT**

**RESUELVO**

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Sozietate Zibilen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzea hogei (20) egun baliodunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Primero.– Someter al trámite de información pública el proyecto de Decreto por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Sociedades Civiles del País Vasco, por un periodo de veinte (20) días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Bigarrena.– Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkezteko aukera egon dadin, dekretu-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua II eraikina, lehenengo solairua, Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/).

Segundo.– A los efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, y para posibilitar la presentación de alegaciones, el contenido del proyecto de decreto estará disponible en la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno (c/ Donostia-San Sebastián, 1–Edificio Lakua II, primer piso) y en el Tablón de Anuncios de la sede electrónica del Gobierno Vasco, en https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/

Hirugarrena.– Alegazioak elektronikoki aurkeztu ahal izango

Tercero.– Las alegaciones se pueden presentar de manera electrónica en

dira https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/ helbidean, edo, bestela, aurrez aurre, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua II eraikina, lehenengo solairua, Vitoria-Gasteiz), bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuren batean, eta Toki Administrazioekiko Harremanerako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariari zuzendu beharko zaizkio.

https://www.euskadi.eus/tablon-electronico-anuncios/, y presencialmente en la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno (c/ Donostia-San Sebastián, 1–Edificio Lakua II, primera planta), así como en cualquiera de los lugares previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y tendrán que ir dirigidas a la Directora de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 11

Izpta.: Josune Irabien Marigorta
Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria
Directora de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos